



ALBOAN

# Filosofia eta Hiritartasuna irakasgairako material osagarria

## Batxilergoko 1. maila



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

18. Milurtekoko Garapen Helburuen Mandalak. (2008)
19. Pertsona errefuxiatuen begitarteak eta oinatzak. Jarduera-gida. Ikus-entzunezkoa materiala. (2007)
20. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria. Lehen Hezkuntza. (2011)
21. Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgairako material osagarria. DBHko 1., 2. edo 3. maila. (2011)
22. Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgairako material osagarria. DBHko 4. maila. (2011)
23. Filosofia eta Hiritartasuna irakasgairako material osagarria. Batxilergoko 1. maila. (2011)

# Filosofia eta Hiritartasuna irakasgairako material osagarria

## Batxilergoko 1. maila



Argitaratzailea:

**ALBOAN**

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao  
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938  
alboanbi@alboan.org

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea  
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308  
alboanna@alboan.org

Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia  
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267  
alboangi@alboan.org

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Gasteiz  
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676  
alboanar@alboan.org  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Egilea: **ALBOAN**

Data: iraila 2011

Itzulpena: Elhuyar

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-2464-2011

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin  
eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	5
<b>2. Nola erabili Batxilergorako material osagarria</b>	9
2.1. Filosofia eta Hiritartasuna irakasgaiko zer gai-multzo landu daitezke material honetako jarduerekin?	9
2.2. Nola aurkitu jarduerak? Adibide praktikoa	11 12
2.3. Jatorrizko zer baliabide erabili dira jarduera-gida egiteko?	19
<b>3. Jarduera gida</b>	21
1. Atala. Eduki komunak	21
2. Atala. Jakintza filosofikoa	28
3. Atala. Gizakia: banakoa eta gizartea	31
4. Atala. Filosofia morala eta politikoa	38
5. Atala. Demokrazia eta hiritartasuna	40
<b>4. Material osagarrien eranskina</b>	51



# 1. Sarrera

Heztea, gaur egun, erronka bat da, beti izan den bezalaxe. Ahalik eta erantzun egokiena eman behar diogu erronka horri, hartara beste mundu posible bat eraiki ahal izan dezagun.

Hiritar kritikoak eta beste mundu posible bat eraikitzeko konpromisoa dutenak heztea da, gaur egun, hezkuntzaren erronka hori.

***Hiritartasuna*** da talde bateko sentitzea eta pertsonek eta erakundeek konpromisoa izatea guztien onerako jarduteko eta guztiak babesteko, bereziki ahulenei begira. Hiritartasuna protagonista bihurtzen da gizarte konprometitu eta bidezko bat eraikitzeko orduan. Hiritartasuna estatu jakinen mugez eta legez-kotasunaz haraindi doa. Munduko hiritarrez dihardugu.

***Prestakuntza*** da banakoek eta taldeek gizarte-errealitatean eragiteko duten gaitasuna zabaltzea, hezkuntza- eta gaitze-prozesuen bidez. Prozesu horren bidez, banakoa garatzeko eta gizartean eta politikan parte hartzeko ezinbestekoak diren jarrerak eta gaitasunak lortzen dira.

ALBOANek **hiritar arduratsuak**, konprometituak eta inklusiboak prestatzen lagundu nahi du, eta, horretarako, bidegabekeriak sortzen dituen kultura-eredu menderatzailearentzat alternatiba inklusiboak emango dituen **proposamenak eskaintzen ditugu hezkuntzarako, komunikaziorako eta gizarte parte-hartzerako.**

Hiritartasunerako Hezkuntza bat, zeinak:

- **Eskubide** eta betebeharren, parte-hartze sozialaren eta bakearen kulturaren alde egiten baitu bereziki (kultura-artekotasuna, bakea, giza eskubideak, etab.).
- **Gizon-emakumeen** arteko berdintasunaren alde egiten baitu, eta, horretarako, kontuan hartzen du genero-ekitatea hezkuntza-materialetan, neskati-la guztiek hezkuntzarako bidezko sarbidea izan dezatela aldarrikatzen du,

eta bizitzako eremu publiko eta pribatu guztietan gizon-emakumeen arteko genero-harreman bidezkoagoak sustatzen ditu.

- **Eragin** politikoaren eta sareetako parte-hartzearen bidez, Hegoaldean baztertutako kolektiboen bizitzari eragiten dioten erabaki-eremu politikoetan eragiten baitu; horretarako, guk dugun hiritartasunerako hezkuntzaren ikuskera eta hura sustatzeko nahia gurekin partekatzen dituzten erakundeekin hitzarmenak egiten ditugu.
- **Eraginkortasunez** ematen baitu gizartea aldatzeko eta gure ingurunean gizartearen atxikimendu handiagoa eta agerpen publikoa lortzeko egiten dugun lanaren berri.

Gure ustez, munduko egiazko hiritarrak heztea ezin da lortu **irakasgai bakar batean**, baina Filosofia eta Hiritartasuna hezkuntza-aukera bikaina da, eta horretaz baliatu behar dugu aukera hori garatzeko.

Ikasleei hausnarketa filosofikotik ondorioztatzen den dimentsio praktikoa aurrez aurre jartzeko beharra dago, eta horretan oinarritzen dira gida honek proposatzen dituen jarduerak. Hala, inguratzen gaituen mundua aztertzeko eta ulertzeko baliabide kontzeptualak ematen ditugu gidan, eta, gainera, baliabide horiek praktikan jartzea proposatzen dugu.

Ikasleek komunitatean bizitzeagatik duten konpromiso eta erantzukizuna ulertuko badute, galdera batzuk ezinbestekoak direla uste dugu, hala nola *zergatik egin behar dut zerbait?, hein batean erantzulea naiz?, moralari oinarri arrazionala bilatu behar diot?*. Pertsona izatea eta denontzako mundu justu eta duina eraikitzen duen hiritar aktibo eta arduratsua izatea bereiz ezinak direla ulertarazi nahi diegu ikasleei.

**ALBOANek**, bere lanean, material didaktikoak sortu ditu, eta horregatik, irakasleek Filosofia eta Hiritartasuna irakasgaiaren erabil ditzaketen jarduerak eskaintzen ditugu.

Material honetan, hezkuntza-proposamenak gida moduan aurkezten ditugu, irakasleek Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko zikloetako irakasgaietan gai-multzoak lantzeko material osagarriak izan ditzaten. Jarduerak antolatzeko garaian, kontuan izan dugu irakasgaiaren programazioa nola orientatua dagoen BOEn, NAOen eta EHAAn.

Gidarekin batera, CD-DVD bat dago, eta han jaso dira gida honetarako jarduerak aukeratzeko erabili ditugun baliabideak.



Azkenik, argitalpenaren amaierako eranskinean, Filosofia eta Hiritartasuna lantzeko **ALBOAN**ek dituen proposamen gehiago aurkituko dituzu.

- Proposamen batzuk sarean daude: [www.alboan.org](http://www.alboan.org)
- Beste proposamen batzuk, berriz, Bilboko, Iruñeko, Donostiako eta Gasteizko egoitzetan aurkituko dituzu.



## 2. Nola erabili Batxilergorako material osagarria

Filosofia eta Hiritartasuna irakasgairako material osagarri honetan, jardueramultzo bat topatuko duzu, metodologia aktibo eta parte-hartzailean oinarritua. Jarduera horiek ALBOANek azken urteotan irakasleen lana errazteko prestatu dituen material didaktiko guztien artean aukeratu dira.

Hemen aukeratutako jarduerak garatu ahal izateko, ALBOANek material honekin batera aurkeztutako “Hezkuntza-materialak” CD-DVDra jo behar duzu.

### 2.1. Filosofia eta Hiritartasuna irakasaiko zer gai-multzo landu daitezke material honetako jarduerekin?<sup>1</sup>

1. ATALA: Eduki komunak
a. Informazioaren erabilera, azterketa eta kritika. Eztabaida-saioretan parte hartzea norberaren pentsamendua arrazoiekin eta argumentuekin adieraziz.
b. Testu filosofiko, juridiko, soziologiko eta ekonomikoen analisia eta iruzkina, haietako terminoak eta kontzeptuak ondo eta zehatz erabiliz.
c. Mahaigaineratutako arazoen inguruko kontsulta-bideak erabiltzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne.

<sup>1</sup> BOEn, NAOen eta EHAAn argitaratutako blokeekin bat datoz. Euskadin kurrikulumnean ikasgaiak dituen berezitasunei asteritxo batekin marka jarri diogu.

## 2. ATALA: Jakintza filosofikoa

- a. Filosofia, zientzia eta beste jakintza-eredu batzuk.
- b. Filosofia arrazionaltasun teoriko gisa: egia eta errealitatea.

## 3. ATALA: Gizakia: norbanakoa eta gizartea

- a. Alderdi biologikoa: eboluzioa eta hominizazioa.
- b. Alderdi psikologikoa: pertzepzioa, memoria, ikastea, afektibitatea. \*
- c. Alderdi soziokulturala: banakoa eta izaki soziala. Naturaren eta kulturaren arteko tentsioa.
- d. Norbanakoak munduarekin duen harreman linguistikoa eta sinbolikoa.
- e. Gizakiaren ikuskera filosofikoak.

## 4. ATALA: Filosofia morala eta politikoa

- a. Teoria etikoak gaur egungo gizartearen erronken aurrean: zorientasuna eta justizia.
- b. Hiritartasunaren eraketa filosofikoa: sorrera historikoa eta oinarri filosofikoa.

## 5. ATALA: Demokrazia eta hiritartasuna

- a. Botere politikoaren jatorria eta zilegitasuna.
- b. Estatuaren ekintzen zilegitasuna bakea, balio demokratikoak eta giza eskubideak defendatzeko.
  - Giza eskubideak eta demokrazia.\*
- c. Hiritartasuna, eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Errespetua eta aukera pertsonalen balorazio kritikoa.\*
- d. Demokrazia mediatikoa eta hiritartasun globala, pobreziaren eta bazterkeriaren aurkako borrokan konprometitua, baita giza garapen jasangarriaren sustapenean ere.

## 2.2. Nola aurkitu jarduerak?

Materiala prestatzeko garaian, jarduerak hiru bilaketa-mota erabiliz lortzeko moduan prestatu ditugu. Jarduera bakoitzari buruz emandako informazio-kategorietatik abiatuz, gure beharretara gehien egokitzen direnak aukeratu ditzakegu, eta, aukeratu ondoren, CD-DVDan bilatu, urrats jakin batzuk eginez. Erabiltzen dugun kategoriaren arabera, bilaketa sinplea (lehenengo aukera), bilaketa azkarra (bigarren aukera) edo atalen arabeko bilaketa (hirugarren aukera) aukeratu beharko dugu.

Jarraian, jarduera baten bilaketaren adibide praktikoa eginez azalduko ditugu bilaketa-aukerak eta jarduera aurkitzeko urratsak.

**Adibide praktikoa:** Nola aurkitu “Nire beharrak eta besteenak” jarduera?

*Hau da ariketaren inguruan interesatzen zaigun informazioa eta gidak ematen diguna<sup>2</sup>:*



**Izenburua:**

**Nire beharrak eta besteenak**



**Jardueraren deskribapena:**

Zer behar ditugu? Neurri berean behar ditugu denak? Ausartuko zinateke batzuei lehentasuna ematen? Gure behar guztien zerranda egitea proposatuko zaie ikasleei, gure oinarrizko premiez eta alferrikako ondasunez jabetu daitezten.



**Iturria:**

“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



**Gaia:**

Giza garapena eta garapen jasagarria.



**Iraupena:**

50 minutu.

<sup>2</sup> Informazioan ez dugu adinik gehitu material hontako jarduera guztiak 16 urtetik gorako ikasleentzat zuzenduak direlako.

1. **Bilaketa simplea:** aukeratutako jardueraren izenburua idatzi eta haren deskribapena ikusteko edo interesatzen zaigun gai bat idatzi eta materialek gai horri buruz ematen dizkiguten aukera guztiak ikusteko erabil dezakegu.

Titulua bilatuko dugu: **Nire beharrak eta besteak**



ALBOAN bilaketa bilaketa simplea bilaketa simplea

NIRE BEHARRAK ETA BESTEENAK bilaketa bilaketa berria

Titulua	Deskribapena
Nire beharrak eta besteak	Zein dira ditugun beharrak? Nondik datoz behar horiek? Zein da behar eta nahia arteko aldea? Posible litzateke herrien eta herritarren behar guztiak erantzutea?

Ariketan klik egingo dugu fitxan sartzeko.

The screenshot shows a web page with a navigation menu at the top containing icons for 'ALBOAN', 'bitaketa', 'MUNDUPO', 'UNITATE', 'ERAKUSKETA', and 'KAPAZITATE'. Below the menu, the page title is 'ALBOAN' and the subtitle is 'bitaketa'. The main content area is titled 'Titulua: Nire beharrak eta besteak' and contains the following text:

**Deskribapena:**  
 Zein dira ditugun beharrak? Nondik datoz behar horiek? Zein da behar eta nahiaren arteko aldea? Posible litzateke herrien eta herritarren behar guztei erantzutea?  
 Ikasle bakoitzari, berak orain dituen ondasun guztiak eta eduki nahi izango lituzkeenak aipatzeko eskatuko diogu. Horretarako, zenbait ondasunen zerrenda emango diogu. Lehenik, zerrenda horretan ageri ez diren baina ikasle horiek badituen ondasunak gehitu behar ditu. Honela, ikasleak berak gaur egun duen ondarea (berea dena nahiz familiarena izateagatik erabil dezakeena) zein den adieraziko du.  
 Gozagai dituen ondasunak zerrendaratu ondoren, gutxi berru bereganatzea (berak edota familiaren bidez) espero duen ondasunen zerrenda labur bat (agian ez da hain laburra izango) egingo du. Ondoren, ikasleek ondasunei 1etik 4ra arteko balioa eman behar diete, honako honen arabera: 1a dutenak, beren ustez ezinbestekoak diren ondasunak dira; 4a dutenak, beharrezkoak ez diren luxuak; 2a eta 3a dutenak.

**Iturria:**  
 Jarduerak hau "zor zoroa" unitate didaktikoan kokatzen da, "Eta guk zer egin dezakegu?" azpiatalaren baitan.

**Gaia:**  
 Kanpo zorra / Giza garapena eta garapen jasangarria

**Arloak:** **Zikloa Eta Adina:**  
 Ekonomia DBH 2 zikloa eta babilergoa / 14-19 urte

**Iraupena:**  
 Saio bat.

**Materialak:**  
 Fibra 19.1

**Aktibitateen burutzeko fitxa osagarria:** Fibra 19.1

At the bottom of the page, there are buttons for 'Inprimatu' and 'Irakurlearen erantzua'.

Jarduerak material osagarria badu, material horretan sartu ahal izango gara. Adibidearekin jarraituz, behealdean ezkerrean klik egingo dugu, 21.1 fitxan, hura deskargatzeko.

OHARRA: gerta daiteke fitxa Interneteko nabigatzailean irekitzea.





2. **Bilaketa azkarra:** adina, gaia eta zer arlo landu nahi den aukeratu daiteke, eta kategoria horiek in erlazioz atutako jarduera guztiak ikusi.

Hezkuntza-zikloa aukeratu du gu: Batxilergoa, 16 urtetik aurrera.


Curriculum-arloa aukeratu du gu: arlo guztiak.

Gaia aukeratu du gu: giza garapena eta garapen jasagarria.

Titulua	Deskribapena
Nire beharrak eta besteak	Zein dira ditugun beharrak? Nondik datoz behar horiek? Zein da behar eta nahia ren arteko aldea? Posible litzateke herria eta herritarren behar guztiak erantzutea?
Zenbakiak eta pertsonak	Herria garapena dirutan bakarrik neurtzen al da? Zein beste alderdi ezagutzea litzateke interesgarria garapenaren ikuspegi integratua gatazko? Badakigu zer den Giza Garapenerako Indizea?
Lehia eta lankidetzak	Nola funtzionatu dute ekosistemak? Zein motatako harremanak sortzen dira elkarrekin bizi diren espezieen artean? Indartsuenaren legeak balio al du?
Zorra eta ingurumena	Bola eragiten du kanpo-zorrak ingurumenean? Eta ingurumena guztiengan? Bi irudirekin egingo dugu lan, bakarka nahiz taldeka. Irudiekin jarduera desberdinak egin daitezke.
Kontzeptuzko mapa	Kanpo-zorra zein alderdi edo kontzeptuekin lotuko denuke? Eta zein da hauen artean dagoen harremana? Egin dezagun kontzeptuzko mapa bat!
Adivasiak, Indiako lehen biztanleak	Zeintzuk dira Indiako indigenak? Oraindik existitzen dira? Asko dira? Nola eta non bizi dira? Indiako kasta sisteman nola ikusiak daude Adivasiak?
Nire herria da Kanbodiak bigratuta. Kanbodia nire herria denez bigratuta	Zer dakigu Kanbodiari buruz? Zenbat biztanle ditu? Nolako da herria da? Zeintzuk dira gure herria dairekin alderatuz gero antzekotasun eta desberdintasunak?
Egiten dugu ezer ingurumenaren alde?	Zer da ekologia? Zer garrantzi dauka ekologiak munduaren eraldaketan? Zer erantzukizun du horretan gutarik bakoitzak?

Jarduera aukeratuzean, bilaketa sinpleak (lehenengo bilaketa-aukerak) eman dugu deskribapen bera aurkitu du gu.

3. Orriaren eskuinean, gai-multzo hauek agertzen dira: **Munduko hiritarrok; gure munduko protagonista gara, Erakusketak eta gidak, eta Ikus-entzuzko materiala**. Hor bilatu behar da jarduera, jardueraren “iturria” atalean jartzen duenaren arabera. Kasu honetan, jardueraren iturria hau da: Unitate didaktikoak, Zor zoroa.



Unitate didaktikoak aukeratuko ditugu.

ALBOAN

Iraketa

arria > menu > unitate didaktikoak

Unitate didaktikoak:

Ikasgai desberdinetako irakasleen laguntzarekin, bigarren hezkuntza eta batxilergorako unitate didaktikoak sortu dira. Kurrikulum ofiziala oinarri harturik, ikasgai desberdinak elkartasuna sustatzen duten eduki, prozedura eta jarrerekin lotu nahi izan dira.

Oro har, unitateak ikasgai batzuetarako sortu dira. Dena dela, bai adina eta baita arloari dagokionean erraz egokitu daitezke beste arlo, hezkuntza gune, heziketa ziklotara nahiz bigarren hezkuntzako lehen ziklora.

**Unitate didaktikoetako tituluen zerrenda:**

**Gizarte gaitako departamentua:**

- Zor zoroa
- Lurra begi bistan

**Filosofia departamentua:**

- Giza harremanak, botere-harremanak?

**Zientzietako departamentua :**

- Zientzia eta e(rr)boluzioa

**Literatura departamentua:**

- Lerro artean irakurtzen
- Zentzumenak irakasle

UNITATE DIDAKTIKOAK

Zor zoroa aukeratuko dugu.

The screenshot shows the ALBOAN website interface. At the top, there are navigation tabs: 'bilaketa', 'MUNDUKO HIRITARROK', 'BALIABIDE DIDAKTIKOAK', 'MUNDUKO PROTAGONISTAK GARA', and 'MUNDUKO HIRITARROK'. Below the navigation, there is a search bar and a main content area. The main content area is titled 'Zor zorra' and contains a section 'Laburpena:' followed by a paragraph of text. Below this, there is a section 'Proposamen didaktikoaren aurkibidea:' which lists various activities. The activities are numbered and include titles like '10. jarduera: Ballabide gutxi', '11. jarduera: Zorra eta ingurumena', '12. jarduera: Kontzeptuzko mapa', '5.3. Nor noren zordun? Bidezkoa da kanpo-zorra?', '13. jarduera: Nor noren zordun?', '14. jarduera: Bidezko/ Bidegabesa den zorra', '15. jarduera: Zorraren dekalogoia', '16. jarduera: Handia dut interesa, zu maltatzeko, Teresa', '17. jarduera: Letra zopa', '5.4. Eta guk zer egin dezakegu?', '18. jarduera: Zorra plaza garapen bihurtzea', '19. jarduera: Nire beharrak eta besteena', '20. jarduera: Euren erkin eta... gure erkin kontsumituz', '21. jarduera: Sarean barrena', '22. jarduera: Referendum bat antolatuko dugu: denek beren iritzia eman dezatela', and '23. jarduera: Zer dakigu kanpo-zorraz?'. Item 19 is circled in orange.

Proposamen didaktikoaren aurkibidea, jarduera bilatu, eta aukeratuko dugu.

### 2.3. Jatorrizko zer baliabide erabili dira jarduera-gida egiteko?

Jarriaian, ALBOANen baliabideen **aurkezpen-laburpen** bat egingo dugu; baliabideen artean daude material honetarako aukeratutako jarduerak (fitxa baikoitzeko *iturriak* atalean agertzen direnak dira).

### MUNDUKO HIRITARROK; GURE MUNDUKO PROTAGONISTAK GARA

Diziplina anitzeko proposamen bat da. Hiritartasunaren gaia lantzen du, eta irakasgaiko programako edukiekin lotzeko aukera ematen du; horrenbestez, hiritartasun arduratsua eta solidarioa eraikitzen laguntzen du.

**Hiru gai-multzo** ditu: Eskubideak eta betebeharrak, Hiritartasun unibertsalak lotzeko parte-hartzea eta Gatazken konponketa.

- **Eskubideak eta betebeharrak:** giza eskubideak gizaki guztien eskubide direla defendatzen da; pertsona guztien eskubideak ez direnak gutxi batzuen pribilegioak dira. Eskubideek berekin betebeharrak dakartzatela ere defendatzen da, ezinbesteko korrelazioa baitago haien artean, eta eskubideak nahiz betebeharrak familian, ikasgelan, auzoan eta hirian ditugula ere bai.
- **Hiritartasun unibertsala lortzeko parte-hartzea:** antolatutako pertsona askoren ahaleginari eta parte-hartzeari esker lortu dira gauza gehienak gizartearen. Horretarako, eremu hurbilenetan (familia, auzoa, hiria) parte hartzen hasi behar da, eta ohartu munduan parte hartzeko modu ugari daudela. Parte-hartzearen bidez, gure munduko protagonistak izan gaitzke, eta guztiontzako mundu duin eta bidezkoago bat eraiki dezakegu.
- **Gatazken konponketa:** gatazkek gizarte-bizitzako eta giza harremanetako berezko elementutzat hartzen dira. Ez dugu haien beldur izan behar, aberastu egiten gaituen aniztasun batetik sortzen baitira batzuetan. Gatazkek aukera ona dira pertsonak eta gizarteak hazteko eta hobetzeko. Komeni da gatazka eta indarkeria bereiztea. Gatazken arrazoiak, moldeak eta horiek modu baketsuan konpontzeko moduak ere aztertzen dira, gatazkek aukera bihurtzeko.

## UNITATE DIDAKTIKOAK

Elkartasuna sustatzen duten eduki, prozedura eta jarrerak eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak lotzen dituzten hainbat gai jorratzen dituzte. Unitate didaktikoak irakasgai zehatzetara begira sortu badira ere, ondo moldatzen dira beste curriculum-arloekin eta prestakuntza-eremuekin.

## ERAKUSKETAK

Edukiak irudien bidez eta gertutasunez aurkezten dituzten hezkuntza-tresnak dira. Batzuek Hegoaldeko errealitatea jorratzen dute; beste batzuek, aldiz, gaur egungo munduaren erronkak aztertzen dituzte, edo gure bizitza eta ingurunea moldatzeko jardunbideak jasotzen dituzte. Erakusketa guztiek gida didaktikoa dute. Landutako gaien inguruko informazio gehiago eskaintzen du gidak eta gai horiek sakonago lantzeko jarduera zehatzak proposatzen ditu. **ALBOAN**en erakusketak ikastetxeek, erakundeek eta abarrek maileguan har ditzakete.

### 3. Jarduera-Gida

Jarraian, Filosofia eta Hiritartasuna irakasgaiaren osagarri gisa erabil daitezkeen jarduerak aurkeztuko ditugu. Unitatearen atalen arabera ordenatuta daude, horrela, ikasleekin landu nahi dugun atalaren arabera aukeratu ahal izango dugu jarduera.

#### 1. Atala: Eduki komunak

a. Informazioaren erabilera, azterketa eta kritika. Eztabaida-praktikan parte hartzea norberaren pentsamendua arrazoiekin eta argumentuekin adieraziz.



#### Gure iritziak eztabaidagai



Posible da gure iritzia inposatu gabe eztabaidatzea? Eztabaida batek izan behar dituen elementuak ezagutzen ditugu? Zer-nolako jarrerak behar dira mundu guztiak bere iritzia adierazteko aukera izan dezan eta batzuen eta besteen iritziak gerturatu daitezen? Eztabaida dezagun immigrazioaren inguruan.



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Arrazakeria eta aurreiritziak/Komunikabideak eta Internet/Pertsonen mugimendua.



50 minutuko bi saio.



### **Langileen eskubideak, kontsumitzaileen eskubideak**



Merkataritza-ordutegi libreek lan-baldintzei onura edo kalte egiten diete? Zer dakar komertzioek irekitzeko ordutegi malgua izateak? Kontsumitzaileen eskubide bat da? Non amaitzen dira batzuen eskubideak eta non hasten besteenak? Nola bilatu dezakegu oreka?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa.



50 minutu.



### **Irakurketa eta elkarrizketa**



Zer dakigu munduko populazioan eragin larriena duten gaixotasunei buruz? Uste dugu ikerketek lehentasuna ematen diotela hiesari, malariaren, hepatitisaren edo antzeko gaixotasunen aldean?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Ikerketa zientifikoa/Osasan-hezkuntza: droga-mendekotasunak, elikadura, HIESA.



50 minutu.





### Banako inkesta



Zer iritzi dugu komunikabideen inguruan?  
Zertarako erabili ohi ditugu? Zer eragin dute gugan?



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Kontsumo arduratsua  
eta kontsumismoa.



30 minutu.



### Prensa-zuzentzaileak gara



Prentsak behar bezala tratatzen ditu etorkinak? Egunkariak ematen duten informazio guztia (nazionalitatea, lanbidea, etab.) benetan aipagarria da transmititu nahi den mezuan, edo aurreiritziak sortzeko balio du? Ausartuko gara kazetariei zuzentzen, gertaerak gertatu diren bezala kontatzeko?



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet.



30 minutu.



## Parte-hartzearen eskailera



Zer da parte-hartzea? Gure bizitzako zer eremutan har dezakegu parte? Parte hartu ohi dugu? Eta gure familian, parte hartzen dugu erabakietan?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara; Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutu.

## Horrez gain:



Egunkaria irakurtzen



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Indarkeriarik eza gerraren aurrean



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara; Gatazken konponketa.



Berri-Collagea



Erakusketaren gida didaktikoa: “Ezagutu munduko arazoak, ikasi elkartasuna zer den”.

**b. Testu filosofiko, juridiko, soziologiko eta ekonomikoen analisia eta iruzkina, haietako terminoak eta kontzeptuak ondo eta zehatz erabiliz.**



### **Informazioa, iritzia eta aurreiritzia**



Azter ditzagun linguistikoki immigrazioaren inguruko bi kazetaritza-testu. Beren iritzia transmititzeko estrategiaren bat erabiltzen dute autoreek?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Arrazakeria eta aurreiritziak/Komunikabideak eta Internet/Pertsonen mugimendua.



50 minutuko bi saio.



### **Ardi beltza**



Zer da arrazakeria? Gure gizartean, zergatik gaitzesten ditugu kultura txiki batzuk beste batzuk baino gehiago edo zergatik ditugu horien inguruko estereotipoak eta aurreiritziak? Ezezagunari uko egiten diogu? Batzuk beste batzuk baino hobeak dira?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara; Gatazken konponketa.



Aniztasuna/Gatazken konponketa.



50 minutuko bi saio.

**c. Mahaigaineratutako arazoengatik inguruko kontsulta-bideak erabiltzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne.**



**Gizon-emakume immigranteen eskubideak**



Nola agertzen dira gutxiengoa duten kolektiboak komunikabideetan? Askotan iritziak egitatetzat hartzen ditugula uste duzue? Nola baldintzatzen gaituzte aurreiritziek pertsona bat epaitzean?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Arazakeria eta aurreiritziak/ Komunikabideak eta Internet.



50 minutu.



**Sareratuak**



Internet parte hartzeko gune gisa erabil daitezke? Nola lor dezakegu gune plurala eta integratzailea izatea? Zertarako balio dute gune-mota horiek?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/ Komunikabideak eta Internet.



50 minutuko bi saio.



## Premia eta kontsumoa



Behar duguna bakarrik kontsumitzen dugu? Nola eragiten die publicitateak gure kontsumo-ohiturei? Guk gehiago kontsumitzeak ba al du eraginik beste pertsonengan?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa/Komunikabideak eta Internet/Giza garapena eta garapen jasagarria.



50 minutuko bi saio.



## Komunikabideen auzia



Komunikabideak objektiboak dira informazioa transmititzean? Komunikabide guztiek berdin kontaktzen dizkigute albisteak? Noraino iristen da komunikabideen boterea?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Aniztasuna/Komunikabideak eta Internet/Gatazkek eta bakea.



50 minutuko bi saio.

## 2. Atala. Jakintza filosofikoa

### a. Filosofia, zientzia eta beste jakintza-eredu batzuk.



#### Zuk zer egingo zenuke



Zer arrazoi erabiltzen ditugu gaur egun kolektibo batzuen diskriminazioa eta bazterketa justifikatzeko? Ideia, aurreiritzi eta estereotipo horiek badute oinarri zientifikorik?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Aniztasuna/Arrazakeria eta aurreiritziak/Gatazken konponketa.



50 minutuko saio bat.



#### Hasierako inkesta



Zer dakigu zientziari buruz? Zientzialariek zer egiten dute? Zertarako balio du beren lanak? Zer alorretan egiten da ikerketa gehien?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Ikerketa zientifikoa/Baterako hezkuntza.



50 minutos.



## Metodo zientifikoa gauzaten



Zientziak dena azal dezake? Maitasuna zientifikoki azal dezakegu? Zertan datza metodo zientifikoarekin ikertzea? Zer urratsi jarraitu behar zaie?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Ikerketa zientifikoa.



50 minutuko bi saio.



## Genoma, gizatiarra?



Aurrerapauso eta aurkikuntza oro gizakientzat desiragarria eta positiboa da beti? Zientziak askatasun osoz eta neurririk gabe egin behar du aurrera, kanpoko inolako kontrolik gabe?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Ikerketa zientifikoa/  
Giza garapena eta garapen jasangarria.



50 minutuko bi saio.



### Tratu txarra historian zehar



Nolakoa eragina izan dute teoria zientifikoek emakumeen diskriminazioan? Gaur egun, egoerak hobera egin du? Zer egin genezake genero-berdintasuna lortzeko? Nolakoa izango litzateke genero-berdintasuna duen gizarte perfektu bat?



“Zientzia eta e(r)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Baterako hezkuntza/Arrazakeria eta aurreiritziak/  
Eskubideak eta betebeharrak.



50 minutuko saio bat.

## b. Filosofia arrazionaltasun teoriko gisa: egia eta errealitatea.



### Gertaerak eta iritziak



Badakigu gertaerak eta iritziak bereizten? Gure pentsatzeko eta jarduteko modua baldintzatzen duten estereotipoen jabetzen gara?



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet.



30 minutu.



### 3. Atala. Gizakia: norbanakoa eta gizartea

#### a. Alderdi biologikoa: eboluzioa eta hominizazioa.



##### Eboluzioari buruzko nazioarteko biltzarra



Eboluzio biologikoari buruzko zer teoria daude? Ideia zientifikoak aldaezinak dira edo historian zehar aldatzen doaz? Testuinguru kulturalak eta sozialak badu eraginik garapen zientifikoan?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Ikerketa zientifikoa.



50 minutuko bost saio.

#### b. Alderdi psikologikoa: pertzepzioa, memoria, ikastea, afektibitatea. \*



##### Sentsazioen hizkuntza



Ikasleei sentsazioen hizkuntzan sakontzea proposatzen diegu, beren hiztegia aberastu dezaten. Hori lortzeko, usaimen-, entzumen-, dastamen- eta ukimen-sentsazioen hitz-zerrenda baten sinonimoak eta antonimoak bilatu beharko dituzte.



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa/Aniztasuna.



30 minutu.



### Sentsazioak definitzen



Proposatutako sentsazio-zerrenda bat definitu behar dute ikasleek, eta sentsazio horiek sailkatu, zentzumenen arabera (ukimena, ikusmena, dastamena, etab.). Hala, barneratu egingo dute sentsazioen sailkapena, geroko jardueren oinarri izango dena.



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



30 minutu.



### Artearen kutsua



Koadro batek, musika-lan batek edo eskultura batek bost zentzumenetan sorraraz diezazkiguke sentsazioak? Iker ditzagun lan batzuk, eta ikus dezagun zer transmititzen diguten!



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutu.



### Nire esperientzia



Zerbait berezia sentiarazi dizun esperientziarik gogoratzen duzu? Hitzen edo ikurren bidez adierazteko gai gara? Nola sailkatuko genuke izandako sententzio bakoitza? Ikur baten bidez irudika genitzake?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa/Aniztasuna.



60 minutu.

### c. Alderdi soziokulturala: banakoa eta izaki soziala. Naturaren eta kulturaren arteko tentsioa.



### Arraza kontzeptua



Nola erabili izan da arraza kontzeptua historian zehar? Horrek eraginik izan du talde etniko batzuen diskriminazioan? Zer teoria edo estereotipo daude oraindik indarrean?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Ikerketa zientifikoa/Aniztasuna/Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutuko saio bat.



## **Boluntarioen motibazioak**



Zer ulertzen dugu “borondatezko lana” esatean? Zerk bultzatzen gaitu boluntario izatera? Edozein motibaziok balio du boluntario izateko?



Erakusketaren gida didaktikoa: “Borondatezko lana, pertsona orori zabaltzen zaien atea”.



Gizarte-bazterketa/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Elkartasuna.



50 minutuko bi saio.



## **Sinboloak eta emozioak**



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoaren 6. jarduerako irudiekin jarraituz, ikasleek honako obra hauetan definitutako sentsazioak eremu semantikoen arabera sailkatu behar dituzte: Lorenon Bernini, Salvador Dalí, Jan Van Eyck, Monet, Friedrich eta Vivaldi.



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutu.

#### d. Norbanakoak munduarekin duen harreman linguistikoa eta sinbolikoa.



##### Hegoaldeari buruz dugun irudia



Zer-nolako irudi etortzen zaigu burura Hegoaldeko herrialdeetan pentsatzean? Egin dezagun alegiazko argazki bat, eta deskriba ditzagun argazki horrek sortzen dizkigun ideia nagusiak, sentsazioak eta emozioak. Sentsazio horiek eta benetako argazki batek sortzen dituenak antzekoak dira?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa/  
Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutu.



##### Hunkitzeko artea



Obra bat entzutean edo koadro bati begiratzean, gure zentzumen guztiak dauzkagu martxan? Egin dezagun proba. Hamaika emozio eta sentsazio transmitituko dizkigute.



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutuko bi saio.



### Hitzak, emozioak, sentsazioak



Zer testu-mota ezagutzen dituzu? Testu-mota bakoitzak ikurrak erabiltzeko bere modua du? Zer emozio eta sentsazio transmititzen dizkigute ikur horiek?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutu.



### Hitz zehatzak



Badugu nahikoa hiztegi sentitzen duguna? Jolas dezagun hitzekin, hitzak ondo erabiltzen dakigun ikusteko!



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa/  
Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutu.

## e. Gizakiaren ikuskera filosofikoak.



### Askatasuna, nire ustez...



Zer da askatasuna eta zer askatasunik eza? Ezagutzen duzue egoera horietakoren bateko kasurik?



Erakusketaren gida didaktikoa: “Ezagutu munduko arazoak, ikasi elkartasuna zer den”.



Gatazkak eta bakea.



50 minutu.

#### 4. Atala. Filosofia morala eta politikoa

##### a. Teoria etikoak gaur egungo gizartearen erronken aurrean: zorientasuna eta justizia.



##### HIESA. Osasuna edo patenteak?



Patenteak bizitzeko eskubidea baino garrantzitsuagoak dira? Multinazionalak diru publikoz lagundutako ikerketez baliatu daitezke etekinak lortzeko? Zilegi da besteen zorigaitzaren kontura aberastea?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Ikerketa zientifikoa/Berdintasunezko merkataritza-harremanak.



50 minutu.



##### Gatazkaren korapiloa



Zer esaten digute posterrek gatazkak konpontzeari buruz? Nola osatuko genuke poster zuria gure iritziekin?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Aniztasuna/Komunikabideak eta Internet/Gatazkak eta bakea.



50 minutuko bi saio.



## b. Hiritartasunaren eraketa filosofikoa: sorrera historikoa eta oinarri filosofikoa.



### Izendatuak?



Parte hartzeko zer modu ezagutzen ditugu? Modu horiek guztiak balekoak dira edo parte-hartzearen helburuaren arabera balio dute? Norberaren helburuak bilatzen dituen jende askok parte har dezake proiektu berean?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko bi saio.



### Barraskiloaren estrategia



Kolonbian, 1994. urtean, Sergio Cabrerak zuzendutako “La estrategia del caracol” filmaren inguruko bideo-foroa.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Aniztasuna/ Gatazken konponketa.



50 minutuko hiru saio.

## 5. Atala. Demokrazia eta hiritartasuna

### a. Botere politikoaren jatorria eta zilegitasuna.



#### Instituzio politikoak eta estatuarenak



Badakigu instituzio politikoak eta sozialak bereizten?  
Eta instituzio politikoek artean, zein dira estatuarenak?



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Eskubideak eta betebeharrak/Gizarte-bazterketa/  
Botere-desberdintasunak eta aukera-desberdintasunak



50 minutu.



#### Erakundeak: botere-arazoa



Instituzioak beharrezkoak dira gizarte batek funtziona dezan?  
Eta zer harreman dituzte instituzioek boterearekin?



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Eskubideak eta betebeharrak/Gizarte-bazterketa/  
Botere-desberdintasunak eta aukera-desberdintasunak.



20 minutu.



### **Aginpidea edo boterea?**



Badago desberdintasunik aginpidearen eta boterearen artean? Egon daiteke boteretik aginpiderik gabe? Eta alderantziz? Azter dezagun jardueran proposatutako pertsona ospetsuek aginpidea edo boterea erabiltzen duten.



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Botere-desberdintasunak eta aukera-desberdintasunak.



50 minutu.

### **b. Estatuak bakea, balio demokratikoak eta giza eskubideak babesteko egiten duenaren zilegitasuna.**

- Giza eskubideak eta demokrazia. \*



### **Aurpegia eta gurutzea**



Zer desberdintasun dago legezotasunaren eta zilegitasunaren artean? Desberdintasun horiek jarduerak proposatzen dituen lau dilema moraletan bereizteko gai gara?



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Eskubideak eta betebeharrak/Gatazkak eta bakea.



50 minutu.



### **Nire eskubideak, gure eskubideak, haien eskubideak**



Zer eskubide urratzen dira jardueran proposatutako kasu praktikoetan? Adierazpenaren zein artikuluri egiten dio erreferentzia kasu bakoitzak?



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Eskubideak eta betebeharrak.



50 minutuko bi saio.



### **Hiru belaunaldiko eskubideak**



Bazenekien giza eskubide guztiak ez zirela batera onartu? Eskubide zibilak eta politikoak onartu ziren lehenengo, gero, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, eta, azkenik, ingurumen- eta bake-eskubideak. Zer mekanismoren bidez bermatzen dira giza eskubide horiek?



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Eskubideak eta betebeharrak/Gizarte-bazterketa.



50 minutuko bi saio.



### Giza eskubideen deklarazio unibertsala



Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala ezagutzen dugu? Zertarako balio du? Zer testuinguru historikotan idatzitakoa dela uste dugu?



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Eskubideak eta betebeharrak.



50 minutuko bi saio.



### Kasu praktikoen analisisia



Gaur egungo zer gatazka-mota ezagutzen ditugu? Zer eragile daude gatazka horietan sartuta? Estatuak soilik, estatuak eta enpresak, edo baita gizarte zibila ere? Nola diseina liteke gatazka konpontzeko bake-plan bat?



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Eskubideak eta betebeharrak/Gatazkak eta bakea.



50 minutuko lau saio.

**c. Hiritartasuna, eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Errespetua eta aukera pertsonalen balorazio kritikoa.\***



**Hiritarren eskubideak eta betebeharrak**



Nahi duguna egiteko aske gara? Zer betebeharrak izango lituzkete hiritarrek, eskatzen ditugun eskubideekin oreka lortzeko? Eta tokian-tokian? Nola ekarriko genuke hori gure errealitatera?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak.



50 minutuko bi saio.



**Zein giza eskubide?**



Espainiako Konstituzioak jasotzen ez dituen zer eskubide sozialen hutsunea sumatzen duzu? Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturei buruzko Nazioarteko Ituna sinatu ostean, zer aldaketa egin dira 1978ko Espainiako Konstituzioan?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak.



50 minutuko bi saio.



## Boterea lortzea eta parte hartzea



Proiektuetan eta politiketan berdintasun-egoeran parte hartzeko aukera berdinak ditugu pertsona guztiok? Zer eginkizun dute instituzioek boterea pertsonen artean banatzeko orduan?



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/  
Botere-desberdintasunak eta aukera-desberdintasunak.



50 minutuko bi saio.



## Desobedientzia zibila



Badakigu desobedientzia zibila zer den?  
Gaur egun, desobedientzia zibila gauzatzeko zer modu daude?



“Giza harremanak, botere-harremanak?” unitate didaktikoa.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/  
Botere-desberdintasunak eta aukera-desberdintasunak.



50 minutu.



### Kasuak aztertzen



Nola erantzuten diegu bizitzako egoerei? Nola hartzen ditugu erabakiak? Interes kontrajarriak daudenean, eskubide eta betebeharren eskema erabilgarria da pertsonen arteko harremanetarako?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Komunikabideak eta Internet/Gatazken konponketa.



50 minutuko bi saio.



### Osatu gabeko esaldiak



Badakizu zein herrialdetan 40 milioi pertsonak ez duten osasun-estaldurarik? Eta Europako zein herrialdetan dagoen errezeta batean jartzen duena ulertu ezin dezakeen jendea? Jarduera honetako zenbait datuek harrituko zaituzte...



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Eskubideak eta betebeharrak/Gizarte-bazterketa/  
Botere-desberdintasunak eta aukera-desberdintasunak.



40 minutu.



**d. Demokrazia mediatikoa eta hiritartasun globala, pobreziaren eta bazterkeriaren aurkako borrokan konprometitua, baita giza garapen jasangarriaren sustapenean ere.**



**Zorraren gaiari bueltaka**



Zer da kanpo-zorra? Hirialde guztiek daukate kanpo-zorra? Zer egoeratan kezkatu behar gaitu herrialde baten kanpo-zorrak? Kanpo-zorraren inguruko baieztapen-sorta batetatik abiatuta, alderdi positiboak eta negatiboak aztertuko ditugu.



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Kanpo-zorra.



50 minutu.



**Bizitzako-historiak**



Kanpo-zorra duen herrialde batean bizitzea gustatuko litzaiguke? Kanpo-zorraren ondorioak pairatzen dituzten pertsonarik ezagutzen duzu? Hegoaldeko lau herrialdetako pertsonen kasuak aurkeztuko dira (Nikaragua, Etiopia, Zambia eta Peru).



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Kanpo-zorra/Giza garapena eta garapen jasangarria/  
Botere-desberdintasunak eta aukera-desberdintasunak.



50 minutuko bi saio.



### Giza garapenerako gailurra



Giza eskubideak kategoriatan sailkatzea zilegi dela uste duzu?  
Horrek esan nahi du eskubide denak ez direla ezinbestekoak  
bizitza duina eta kalitatezkoa izateko?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara,  
Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Gizarte-bazterketa/  
Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko bi saio.



### Nire beharrak eta besteenak



Zer behar ditugu? Denen premia bera dugu? Ausartuko zinategi  
batzuei lehentasuna ematen? Gure behar guztien zerrenda egitea  
proposatuko zaie ikasleei, gure oinarrizko premiez eta alferrikako  
ondasunez jabetu daitezten.



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Giza garapena eta garapen jasangarria.



50 minutu.



## Kontsumo arduratsua



Zer egin dezakegu ingurumena zaintzeko eta era arduratsuan eta kalterik eragin gabe kontsumitzeko? Nola konbentzitu ditzakegu hiritarrak horren garrantziaz?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa/Komunikabideak eta Internet/Ingurumena: birziklatzea, kutsadura.



50 minutuko bi saio.

## Horrez gain



Zer da garapena?



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Azpigarapenaren eta garapenaren ezaugarriak



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Zorrak aurpegi anitz ditu



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Herrien historiak



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Nork du zor handiagoa



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Bidezko/bidegabea den zorra



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Zorren dekalogoia



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Gure proposamena



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Zorra giza garapen bihurtzea



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



## 4. Material osagarrien eranskina

Jarraian, ALBOANen beste baliabide batzuen erreferentziak aurkezten ditugu. Ez daude “Hezkuntza-materialak” CD-DVDan, baina Filosofia eta Hiritartasuna irakasgairako lagungarriak izan daitezke.

Horietako batzuk webgunean eskuratu daitezke, formatu digitalean; beste batzuk, berriz, formatu fisikoa dutenez, Bilboko, Iruñeko, Donostiako eta Gasteizko egoitzetan aurkituko dituzu.

www.alboan.org webgunean, Filosofia eta Hiritartasuna irakasgaien aplikatu daitezken jarduerak aurki ditzakegu honako baliabide hauen artean:

### Kanpaina-materialak

#### • Adingabe soldaduak

- Jarduerak:
  - Denok gara
  - Eta... non sartzen dira haurrak?
  - Positiboki pentsatzen

#### • Milurtekoko Garapenaren Helburuak

- 0. koaderno. Jarduera:
  - Milurtekoko helburuak lortzea... gure erantzukizuna da.
- 3. koaderno. Jarduera:
  - Estereotipoak.
- 8. koaderno. Jarduerak:
  - Berdintasunik eza... herrialde aberatsen eta pobreen arteko bidegabekeriaren emaitza.
  - Nazioarteko merkataritza, bidezkoa ala bidegabea?

### Material didaktikoak:

- **Etorkizun-aukerak**

- Jarduera:

- Posible da errefuxiatuentzat etorkizun-aukerak sortzea?

### Erakusketak:

- **Errefuxiatu eta desplazatuak ere eskubideen jabe**

- Jarduera:

- Bizilekuz aldatu behar izan duten pertsonak, errefuxiatuak, migratzaileak.

Sarean edo CD-DVDan dauden argitalpen guztiak paperean ditugu gure **egoitzetan (Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean)**. Gainera, erakusketak eta gure Baliabide Zentroetako beste material batzuk mailega ditzakezu.

Argitalpen honetan Filosofia eta Hiritartasuna irakasgairako jarduera-gida bat aurkezten dugu, Batxilergoko 1. mailako irakasleek erabili dezaten. Material osagarri hau Hezkuntza Materialak CD-DVDarekin osatzen da.

